



## UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEAREN BATZAR NAGUSIA. 2022KO UZTAILAREN 14KO EZOHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA.

### Honako batzarkide hauek bertaratu dira:

#### Aizarnazabalgo ordezkariak

Mari Karmen Arregi Agirre.....(% 0,81)  
Ander Etxabe Oliden.....(% 0,81)  
Maitane Telletxea López.....(% 0,80)

#### Azkoitiko ordezkariak

Angel Luis Martin Rodriguez.....(% 12,04)  
Ana Azkoitia Urteaga ..... (% 12,04)  
Iraitz Otaño Mugika.....(% 12,03)

#### Azpeitiko ordezkariak

Aitor Bereziartua Larrañaga.....(% 15,33)  
Josu Labaka Zuriarrain.....(% 15,34)  
Amaia Etxeberria Etxeberria.....(% 15,33)

#### Bidania-Goiatzeko ordezkariak

Miren Agurtzane Zelaia Arandia.....(% 0,53)  
Erramun Goikoetxea Amiama.....(% 0,53)  
Aingeru Senperena Iraola.....(% 0,52)

#### Errezilgo ordezkariak

Luis Arakistain Ondarra.....(% 0,61)  
Bittori Otaegi Albeniz.....(% 0,61)  
Ane Ugartemendia Etxeberria.....(% 0,61)

#### Zestoako ordezkariak

Mikel Arregi Urrutia.....(% 3,87)  
Margarita Eizagirre Rodriguez.....(% 3,86)

#### Idazkari kontu-hartzailea

Olatz Eizagirre Orbegozo

#### Ingurugiro Etxea Fundazioaren zuzendaria

Orkatz Goenaga Ormazabal

#### Aholkulari juridikoa

Alejandro Castro Ubetagoyena.

### Ez dira etorri honako batzarkide hauek:

#### Azpeitiko ordezkariak

Amaia Etxeberria Etxeberria.....(% 15,33)

#### Beizamako ordezkariak

Pedro Mari Otaegi Urkizu.....(% 0,16)  
Felix Urkizu Galarraga.....(% 0,16)  
Manuel Labaka Garmendia.....(% 0,15)

#### Zestoako ordezkariak

Garikoitz Mendizabal Etxeberria.....(% 3,86)

2022ko uztailaren 14an, arratsaldeko 18:20tan, Urola Erdiko Mankomunitateko aretoan, Plaza Nagusia, 11-1, Urola Erdiko Mankomunitatearen Batzar Nagusiaren ezohiko osoko bilkura bildu da.

Aizarnazabal, Azkoitia, Azpeitia, Bidania Goiatz, Errezil eta Zestoako udalerriek osatzen dute Mankomunitatea, eta bertaratu diren ordezkariak toki-erakundearen % 80,34 ordezkatzeko dute. Mankomunitatearen estatutuen 10.6 artikulua honako hiru betekizun hauek ezartzen ditu Batzar Nagusiaren lehenengo deialdia baliozkoa izateko:

- 1) Batzarkideen erdia gehi bat egotea.
  - 2) Batzarkideen botoen erdia gehi bat ere izatea.
  - 3) Mankomunitatean ordezkariak dituzten udalen erdia gehi bat egotea ere.
- Hiru baldintza horiek lehenengo deialdian bete dira.



Lehendakariak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita % 80,34ko quoruma zegoela egiaztatu ondoren), eta sei udalerriko ordezkariak bertaratu direla adierazi eta gero, Batzar Nagusiko bilkurari hasiera eman dio. Jarraian, batzarkideek deialdiaren gai-zerrendan jasota dauden gaiak jorratu dituzte.

### **1. 2022ko apirilaren 27ko Batzar Nagusiko ez ohiko osoko bilkuraren akta onartzea.**

Inork besterik adierazi ez duenez, botazioa egin ondoren bertaratutakoek aho batez onartu dute 2022ko apirilaren 7ko Batzar Nagusiko ez ohiko osoko bilkuren akta, Urola Erdiko Mankomunitatearen boto haztatuaren 80,34ko portzentajeaz.

### **2. Urola Erdiko Mankomunitateko estatutuen aldaketa hasieraz onestea.**

Urola Erdiko Mankomunitateko estatuen 11.3 artikulua, estatutuak aldatu ahal izateko, Mankomunitateko Batzar Nagusiko kide guztien aldeko bozka ezinbestekoa dela agintzen du. Baldintza hori betetzen ez denez, gaia mahai gainean uztea erabakitzen da.

### **3. Tresna elektriko eta elektronikoen hondakinak biltzeko lankidetzaren hitzarmena onestea.**

ECOTIC Fundazioarekin, tresna elektronikoen hondakinak biltzeko lankidetzaren hitzarmena onestea proposatzen da.

Hitzarmen honen xedea da MANKOMUNITATEAREN eta SCRAPen arteko lankidetzaren esparruaren baldintzak eta moduak ezartzea, udal-instalazioetan gordailututako TEEHak biltzeko baldintzak arautzeko eta, kasu guztietan, jatorria etxeko jatorria delarik.



**Gaia bozkatu ondoren, honakoa izan da emaitza:**

**Alde: % 80,34**

Aizarnazabalgo ordezkariak (%2,42): Mari Karmen Arregi Agirre A. (% 0,81), Ander Etxabe Oliden J. (% 0,81), Maitane Telletxea López A. (% 0,80)

Azkoitiko ordezkariak (%36,11): Angel Luis Martin Rodriguez J. (%12,04), Ana Azkoitia Urteaga A. (%12,04), Iraitz Otaño Mugika J. (% 12,03)

Azpeitiko ordezkariak (%30,67): Aitor Bereziartua Larrañaga J. den Lehendakaria (%15,33), Josu Labaka Zuriarrain J. (% 15,34).

Bidania Goiatzeko ordezkariak (%1,58): Miren Agurtzane Zelaia. A. (%0,53), Joxe Erramun Goikoetxea Amiama J. (%0,53), Aingeru Semperena Iraola A. (%0,52).

Errezilgo ordezkariak (%1,83): Luis Arakistain Ondarra J. (% 0,61), Bittori Otaegi Albeniz A. (% 0,61), Ane Ugartemendia Etxeberria A. (% 0,61)

Zestoako ordezkariak (% 7,73): Mikel Arregi Urrutia J. (% 3,87), Margarita Eizagirre Rodriguez A. (% 3,86).

**Kontra: % 0,00**

**Bertaratutakoek, aho batez, honakoa onartu dute:**

**Lehena.-** ECOTIC Fundazioarekin, tresna elektronikoaren hondakinak biltzeko lankidetzahitzarmena onestea.

**Bigarrena.-** Hitzarmena sinatzeko Lehendakaria ahalbidetzea.



#### **4. 2021eko Kontu Orokorra onesteko proposamena**

**Urola Erdiko Mankomunitateko Lehendakariak, 2022ko uztailaren 7an egindako proposamena, Urola Erdiko Mankomunitatearen 2021eko Kontu Orokorra onesteko.**

#### **AURREKARIAK**

1. Urola Erdiko Mankomunitateko Kontu Batzorde Bereziak 2022ko maiatzaren 12an egindako bileran, 2021eko Kontu Orokorrari aldeko txostena eman zion.
2. Kontu Orokorra eta aldeko txostena jendaurreko erakustaldian jarri dira 15 egunez; iragarkia argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2022ko maiatzaren 25ean, 98. zenbakian, eta ez da inolako alegazioarik egin.
3. Urola Erdiko Lapatx Zaborteia S.Aren Administrazio Kontseiluak 2021eko martxoaren 31an egindako bileran formulatu dituela sozietate baltzu horren kontuak.
4. Betean S.L.P. enpresak egin du auditoria lana (89 sarrera zenbakia) eta Idazkari Kontu-hartzaileak ontzat eman du.

#### **ZUZENBIDEKO OINARRIAK**

##### **1. Eskumena**

Urola Erdiko Mankomunitateko Batzar Nagusiak du eskumena Kontu Orokorra onesteko Urola Erdiko Mankomunitatearen Estatutuen 11.1 artikularen f) letrak xedatutakoaren arabera (2011ko ekainaren 9ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 109. zenbakian argitaratutakoak).

##### **2. Araubidea**



- Abenduaren 19ko 21/2003 Gipuzkoako Toki erakundeen Aurrekontuaren Foru Arauaren 62., 63. eta 64. artikulua.
- 86/2015 Foru Dekretua, abenduaren 15ekoa, Gipuzkoako toki entitateen kontabilitatearen arau esparrua ezartzen duena.
- Aurrekontuaren exekuzio araua.

### 3. Gaiaren azterketa

Kontu hau honako dokumentu hauek osatzen dutela ikusirik:

- Balantzea
- Ekonomia eta ondare arloko emaitzaren kontua
- Ondare garbiaren aldaketan egoera orria
- Diru-fluxuen egoera orria.
- Aurrekontuaren likidazioaren egoera orria
- Memoria

Bestalde, 2021eko Aurrekontuaren likidazioak honako agiri hauek ditu:

- Lehendakariaren Dekretua.
- Kontu-hartzailearen txostena.
- Likidazioaren laburpen kontua.
- Likidazioa: Kapituluka, Artikuluka, Kontzeptuka, Azpi-kontzeptuka eta Funtzionala. Sarrerak, gastuak eta konpromiso-kredituak.
- Itxitako aurrekontuen aldaketan-orria; ekitaldian kobratzeko eskubideetan eta ordaintzeko betebeharretan izan direnak.
- Aurrekontuz kanpoko zordunen eta hartzekodunen saldoen-orria, aplikatu gabeko ordainketak eta sarrerak barne direla.
- Diruzaintza izakinen kontaketa akta, hiru sinadurekin.
- Diruzaintzako egoera.
- Zordun eta hartzekodunen xehetasunak eta laburpenak.
- Aurrekontuz kanpoko zordun eta hartzekodunen saldoak.
- Egoera Balantzeak.



- Ekitaldiko aurrekontu-emaizta; likidatu den aurrekontuarena eta itxitako aurrekontuena bereizi direlarik.
- Galera eta Irabazien kontua.
- Sarrera eta Gastuen Egoera.

Azkenik, dokumentazio hau ere badago:

a) Ekitaldi amaierako kontabilitate aktak kutxan dagoenari buruz.

b) Toki Entitatearen alde dauden saldoei buruzko banketxe bakoitzaren egiaztageria..  
Beraz, Urola Erdiko Mankomunitateko Batzar Nagusiari honako hau proposatzen zaio:

#### PROPOSAMENA

Lehenengoa.- Urola Erdiko Mankomunitatearen 2021eko Kontu Orokorra onestea.

Bigarrena.- Euskal Herriko Kontuen Epaitegiari horren berri ematea.

#### UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEKO LEHENDAKARIAK

**Gaia bozkatu ondoren, honakoa izan da emaitza:**

**Alde: %56,26**

Aizarnazabalgo ordezkariak (%2,42): Mari Karmen Arregi Agirre A. (% 0,81), Ander Etxabe Oliden J. (% 0,81), Maitane Telletxea López A. (% 0,80)

Azkoitiko ordezkariak (%12,03): Iraitz Otaño Mugika J. (% 12,03)

Azpeitiko ordezkariak (%30,67): Aitor Bereziartua Larrañaga J. den Lehendakaria (%15,33), Josu Labaka Zuriarrain J. (% 15,34).



Bidania Goiatzeko ordezkariak (%1,58): Miren Agurtzane Zelaia. A. (%0,53), Joxe Erramun Goikoetxea Amiama J. (%0,53), Aingeru Semperena Iraola A. (%0,52).

Errezilgo ordezkariak (%1,83): Luis Arakistain Ondarra J. (% 0,61), Bittori Otaegi Albeniz A. (% 0,61), Ane Ugartemendia Etxeberria A. (% 0,61)

Zestoako ordezkariak (% 7,73): Mikel Arregi Urrutia J. (% 3,87), Margarita Eizagirre Rodriguez A. (% 3,86).

**Kontra: %00,00**

**Abstentzioa: % 24,08**

Azkoitiko ordezkariak (%24,08): Angel Luis Martin Rodriguez J. (%12,04), Ana Azkoitia Urteaga A. (%12,04).

**Bertaratutakoek, gehiengoz, honakoa onartu dute:**

**Lehenengoa.-** Urola Erdiko Mankomunitatearen 2021eko Kontu Orokorra onestea.

**Bigarrena.-** Euskal Herriko Kontuen Epaitegiari horren berri ematea.

## **5. 2021eko ekarpen banaketaren txostena onartzea**

Lehendakariak, Urola Erdiko Mankomunitateko Administrazio Orokorreko Teknikariak, ekarpen banaketaren txostena, bere onarpenerako aurkezten du.

Txostenak, honela dio, hitzez hitz:



## 2021eko EKARPENEN KALKULUA

Data:	2022/06/20
-------	------------

Espedientea:	2021ko aurrekontua	Espediente zb.:	
--------------	--------------------	-----------------	--

Gaia:	Ekarpunen banaketa
Azpigaia:	

Egilea:		
Izen-abizenak/Erakundea:	Kargua:	Zerbitzua:
Estitxu Lasa Iturrioz	Administrazio Orokorreko Teknikaria	Administrazioa

Hartzailea:		
Izen-abizenak/Erakundea:	Kargua:	Zerbitzua:
Batzar Nagusiak		

Laburpena:
<p>Urola Erdiko Mankomunitateko Batzar Nagusiak, 2016ko ekainaren 22an egindako bileran, beste batzuen artean, Urola Erdiko Mankomunitatearen ekarpenei buruzko araudia onartu zuen. IV kapituluaz azaltzen diren hoberi eta zigor sistemak aplikatu dira txosten hau idazterakoan.</p> <p>2021eko ekarpena kalkulatzeko orduan, 2021eko aurrekontuko likidazioan azaltzen diren datuak hartzen dira. Udalerrri bakoitzak 2020ko diruzaintza gerakinetik erabili ez duen kopuruari gehitu beharko dio 2021ko hasierako eta amaierako ekarpunen arteko diferentzia eta gutxitu 2021ean hartutako konpromisoak 2022ko aurrekontuan txertatuko direnak.</p> <p>Ekarpunen likidazioa 2021eko abenduaren 31an udalerriz-udalerriz honakoa da: Aizarnazabal - 5.835,14€; Azkoitia 660.715,25 €; Azpeitia 229.084,57 €; Beizama 11.268,05 €; Bidania-Goiatz 9.078,90 €; Errezil 13.587,62 €; eta Zestoa 25.195,03 €.</p>





Datuen arabera, Aizarnazabaleko udalak 2021eko kostuari aurre egiteko 5.835,14 €ko aparteko ekarpena egin beharko du. Beste udalek, ordea, erabaki beharko dute, araudiaren arabera, diru hori itzuliko den edo Mankomunitatearen beharretarako erabiliko den.

## Edukien aurkibidea

1.GASTUEN EGOERA KAPITULUKA.....	3
1.1.1. Kapituluak: Pertsonal gastuak: 1.044.689,69 euro.....	3
1.2.2. Kapituluak: Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan: 2.708.861,68 € euro.....	5
1.3.3. Kapituluak: Finantza gastuak: 0,00 euro.....	5
1.4.4. Kapituluak: Transferentzia arruntak: 9.050,00 euro.....	7
1.5.6. Kapituluak: Inbertsio errealak: 47.651,98 euro.....	7
2.SARREREN EGOERA KAPITULUKA.....	7
2.1.3. Kapituluak: Tasak eta bestelako sarrerak: 479.902,26 euro.....	7
2.2.4. Kapituluak eta 7. Kapituluak: Transferentzia arruntak eta kapitalezkoak: 3.251.952,64 euro.....	8
2.4. 8. Kapituluak: Remanentea: 105.347,66 euro.....	9
GASTUAK ETA SARRERAK 2021eko aurrekontuaren arabera.....	10
GASTUAK ETA SARRERAK 2021eko likidazioaren arabera.....	11
3.2021eko EKARPENEN ALDEA.....	12
3.1.2021eko ekarpenetik itzultzeko.....	123
4.UDALERRI BAKOITZEKO DIRUZAINZA GERAKINA.....	13
(2020KO URTEARI DAGOKIONA) .....	13
2021eko URTEARI DAGOKIONA) .....	13
5.KREDITU ALDAKETAK,ETA EKARPENEN LIKIDAZIOA.....	14

## 1. GASTUEN EGOERA KAPITULUKA

### **1.1 1. Kapituluak: Pertsonal gastuak: 1.044.689,69 euro**

2021. urtean onartutako aurrekontuaren arabera, pertsonal gastuak 1.182.555,24 eurokoak dira. 2020ko urteko likidazioarekin alderatuta % 11,66ko jaitsiera dago. Hau da, 137.865,55 euro. Hala ere, aipatu aldaketa garrantzitsuenak hauek direla:



#### **a) Idazkari Kontu-hartzailea**

2021eko aurrekontua egiterako orduan idazkari kontu-hartzailea urte osorako aurreikusten da. Baina, Azpeitiko udaleko Idazkaria den Olatz Eizaguirre Orbegozo, 2017ko maiatzaren 10etik aurrera Urola Erdiko Mankomunitateko idazkaria ere da eta ez du 1. kapituluan gasturik sortzen. Hori dela eta, 74.217,91 euroko murrizketa dago

#### **b) Hezitzaileak:**

Aurreikusi ziren lau hezitzailek beteko zutela urtea, baita horien ordezkapenak egiteko aurrekontua ere: hezitzaile baten amatasun baimena, eta baja aurreikusten ziren 2021ean, eta horrela bete da. Era berean, 2021ean sartu dira lau hezitzaile langileen zerrendan, beraz izendatu dira lauak hutsik dauden lau plaza modu interinoan betetzeko.

Aurreikusitako hezitzaileen lanak ez dira erabat bete, urtean zehar sortu diren gorabeherak medio: Zestoako alboko edukiontzien ezarpena, Arroaerrekako egokitzapena, Azkoitiko ostalaritzako eta merkataritzako atez atekoa ez jartzea, sortutako ikuskapenak eta abar.

Ondorioz, honelakoa izan da hezitzaileen lanaren banaketa aurreikusitakoarekin konparatuta:

	<b>2021eko aurrekontua</b>	<b>2021eko likidazioa</b>
Aizarnazabal	%9,06	%12,38
Azkoitia	%29,38	%21,20
Azpeitia	%48,74	%46,13
Beizama	%0,62	%0,60
Bidania-Goiatz	%2,10	%1,90
Errezil	%2,43	%2,09
Zestoa	%7,67	%15,70
Guztira	%100	%100

#### **c) Gidari-biltzaileak:**

Gidari-biltzaileen kasuan ez da bete aurreikusitakoa. Aurreikusi zen 2021ean 14 langile beharko zirela, horietatik bi urte osoan baja egoeran daudelako. Baina, langile bati ezintasun egoera dela eta aurre jubilazioa eman diote eta beste langile bat epe luzean baja egoeran egon da. Hori dela eta,



urtean zehar 12,5 langile egon dira eta horren ondorioz, biltzaileen gastua aurreikusitakoa baino txikiagoa izan da.

Ondorioz, honelakoa izan da gidari-biltzaileen lanaren banaketa aurreikusitakoarekin konparatuta:

	2021eko aurrekontua	2021eko likidazioa
Aizarnazabal	%3,45	%4,21
Azkoitia	%13,08	%7,50
Azpeitia	%55,17	%53,45
Beizama	%0,05	%0,05
Bidania-Goiatz	%0,10	%0,10
Errezil	%0,00	%0,05
Zestoa	%28,16	%34,64

**d) Soldata igoera:**

2021eko aurrekontuan %2ko soldata igoera aurreikusi da, 2021eko maiatzaren 27ko batzordeak onartutakoa.

**1.1.2. Udalerrri bakoitzaren pertsonal gastuak:**

	2021eko aurrekontua	2021eko likidazioa
Aizarnazabal	47.609,32 euro	52.746,94 euro
Azkoitia	249.351,57 euro	154.176,61 euro
Azpeitia	615.278,35 euro	550.690,42 euro
Beizama	2.730,66 euro	2.212,73 euro
Bidania-Goiatz	9.004,54 euro	7.103,42 euro
Errezil	9.498,37 euro	7.370,92 euro
Zestoa	249.082,43 euro	270.388,85 euro
	<b>1.182.555,24 euro</b>	<b>1.044.689,69 euro</b>

11/35



### **1.2.2. Kapituluua: Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan: 2.708.861,68 € euro**

Ondasun arruntetan eta zerbitzuetan 2.620.555,64 euroko gastua aurreikusi zen 2021eko aurrekontuan, eta % 3,37 merkeagoa da 2021eko likidazioarekin alderatuta (88.306,04 euro).

Oro har aurreikuspenak bete dira kapitulu honetan, baina badira hiru partida aipamen berezia merezi dutenak:

- Garbiguneko kudeaketa agindua: 160.000,00 euroko gastuak aurreikusi zen. Urtean zehar gastua 202.000 eurokoa izan da eta hauetatik 191.000 euro Lapatxeko dirusarrerak finantzatu dute. Beraz, gastua aurreikusitakoa baino merkeagoa izan da.
- Errefusaren tratamenduan, %14ko garestitzea egon da.
- Organikoaren tratamenduan, %23 merketu da.

#### **1.2.1. Udalerrri bakoitzaren Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan:**

	<b>2021eko aurrekontua</b>	<b>2021eko likidazioa</b>
Aizarnazabal	33.578,01 euro	33.193,69 euro
Azkoitia	1.259.414,13 euro	1.271.405,42 euro
Azpeitia	1.006.632,29 euro	1.073.982,87 euro
Beizama	8.661,86 euro	8.394,26 euro
Bidania-Goiatz	30.180,43 euro	35.219,63 euro
Errezil	31.487,89 euro	30.028,19 euro
Zestoa	250.601,02 euro	256.637,62 euro
	<b>2.620.555,64 euro</b>	<b>2.708.861,68 euro</b>

### **1.3.3. Kapituluua: Finantza gastuak: 0,00 euro**

Aurreikusitakoa baino pixkat garestiagoa izan da 2021eko likidazioaren gastua (3.486,99 euro) 2021eko aurrekontuan (3.050,00 euro) aurreikusitakoarekin alderatuta.



Hala ere, aipatu beharra dago 2021eko aurrekontua ez dela bete aurreikusitakoa bi arrazoiengatik. Alde batetik, kamioak erosteko epe luzerako prestamoa ez da eskatu eta bestetik finantza gastuak, hau da, bankuetxean dirua egoteagatik, %78 garestitu da.

Udalerriek biztanle kopuruaren arabera ordaintzen dute.

### **1.3.1 Udallerri bakoitzaren finantza gastuak:**

	<b>2021eko aurrekontua</b>	<b>2021eko likidazioa</b>
Aizarnazabal	72,90 euro	83,00 euro
Azkoitia	1.098,47 euro	1.255,86 euro
Azpeitia	1.410,37 euro	1.612,44 euro
Beizama	13,50 euro	15,44 euro
Bidania-Goiatz	49,10 euro	56,14 euro
Errezil	55,24 euro	63,15 euro
Zestoa	350,42 euro	400,63 euro
	<b>3.050,00 euro</b>	<b>3.486,99 euro</b>

### **1.4 4. Kapituluak: Transferentzia arruntak: 9.050,00 euro**

Urola Erdiko Mankomunitateak, «Gureak Lanean», «G.Inklusio Fundazioa» eta «Atzegi» entitateak proposatutako, "Pauso Berriak" Programaren esparruko plaza okupazional bati dagokionez, entitateen arteko lankidetzeta eta koordinazio-esparrua ezartzeko helburuarekin lankidetzeta hitzarmena sinatzen da.

Gauzatze portzentajea %100 da.

Bestalde, "Poltsa konpostagarrien erabileraren sustapenerako 2019-2020 kanpaina"n parte hartzeko eta horri atxikitzeko Azkoitiko, Azpeitiko eta Zestoako udalerrietako merkataritza- eta zerbitzuetako establezimenduei zuzendutako diru-laguntzaren 2021eko urteari dagokion 2. zatia, Azkoitiko Altzibar auzoan poltsak banatzeko diru-laguntzen 2. zatia eta alarma egoeran poltsa konpostagarriak banatzeagatik emandako dirulaguntzak, kreditu txertaketa bidez txeratu direnak ordaintzen dira, guztia 5.000,00 euro.



#### **1.4.1 Udalerrri bakoitzaren transferentzia arrunta gastuak:**

	2021eko aurrekontua	2021ko likidazioa
Aizarnazabal	96,80 euro	98,56 euro
Azkoitia	1.458,63 euro	3.145,17 euro
Azpeitia	1.872,78 euro	4.383,30 euro
Beizama	17,93 euro	17,85 euro
Bidania-Goiatz	65,20 euro	66,20 euro
Errezil	73,35 euro	71,66 euro
Zestoa	465,31 euro	1.267,26 euro
	<b>4.050,00 euro</b>	<b>9.050,00 euro</b>

#### **1.5. 6. Kapitula: Inbertsio errealak: 47.651,98 euro**

2021eko urtean bilketarako kamioiak erostea aurreikusi zen. Horretarako 1.147.000,00 euroko mailegua hitzartuko zen entitate finantzario batekin. 2021ean zehar ez da gauzatu ez bata eta ez bestea. Bestalde, 2020ko inbertsio gastuak (53.603,36 euro) 2021eko aurrekontuan txertatu dira (webcam eta edukiontziak).

#### **1.5.1 Udalerrri bakoitzaren inbertsio errealen gastuak:**

	2021eko aurrekontua	2021eko likidazioa
Aizarnazabal	28.600,09 euro	456,65 euro
Azkoitia	430.964,83 euro	6.695,85 euro
Azpeitia	553.330,25 euro	8.725,79 euro
Beizama	5.297,69 euro	82,71 euro
Bidania-Goiatz	19.264,31 euro	306,73 euro
Errezil	21.672,35 euro	332,01 euro
Zestoa	137.480,49 euro	54.514,45 euro



	<b>1.196.610,00 euro</b>	<b>71.114,20 euro</b>
--	--------------------------	-----------------------

## 2. SARREREN EGOERA KAPITULUKA

### 2.1. 3. Kapitula: Tasak eta bestelako sarrerak: 479.902,26 euro

2021eko aurrekontuan, Tasak eta bestelako sarrerak 395.234,81 eurokoak aurreikusten dira. Sarrerak hasieran aurreikusitako baino 84.667,45 euro gehiago dira. Aipagarrienak hauek dira:

- Ecoembeseko diru sarrerak aurreikusitakoak baino handiagoak dira (53.996,835 €tan).
- 2021ean isunak jarri dira hondakinak gaizki botatzeagatik. Isunetan 890,00 euro jaso dira.
- Garbigunetik jasotako dirusarrerak, hau da RAEEtatik eta pilatik jasotakoa, 13.684 €.
- Arraoerrekako gunean egokitze lanak egiteko Gipuzkoako Foru Aldundiak 5.440 €ko dirulaguntza eman du.

#### **Udalerrri bakoitzaren tasak eta bestelako diru-sarrera honakoa da:**

	<b>2021eko aurrekontua</b>	<b>2021eko likidazioa</b>
Aizarnazabal	10.449,52 euro	8.792,69 euro
Azkoitia	120.269,20 euro	129.611,62 euro
Azpeitia	155.421,57 euro	182.565,82 euro
Beizama	1.884,42 euro	1.249,64 euro
Bidania-Goiatz	7.143,27 euro	5.382,25 euro
Errezil	7.133,29 euro	5.207,42 euro
Zestoa	87.512,26 euro	84.196,06 euro
	<b>389.813,53 euro</b>	<b>417.005,51 euro</b>

### 2.2. 4. Kapitula eta 7. Kapitula: Transferentzia arruntak eta kapitalezkoak: 3.251.952,64 euro

Alde batetik daude, GHK-k eta Lapatxek egindako diru sarrerak:



	2021eko aurrekontua	2021eko likidazioa
Aizarnazabal	1.673,07 euro	7.427,04 euro
Azkoitia	25.210,84 euro	96.390,13 euro
Azpeitia	32.369,04 euro	121.298,40 euro
Beizama	309,91 euro	1.646,23 euro
Bidania-Goiatz	1.126,93 euro	5.330,39 euro
Errezil	1.267,80 euro	2.143,84euro
Zestoa	8.042,41 euro	2.143,84 euro
<b>Guztira</b>	<b>70.000,00 euro</b>	<b>270.211,33 euro</b>

Eta bestetik udalerrri bakoitzaren ekarpenak 2021eko likidazioaren arabera.

	2021eko aurrekontua	2021eko likidazioa
Aizarnazabal	59.388,80 euro	63.092,88 euro
Azkoitia	1.387.401,98 euro	1.144.525,71 euro
Azpeitia	1.452.640,82 euro	1.313.462,03 euro
Beizama	9.789,95 euro	6.467,80 euro
Bidania-Goiatz	32.852,01 euro	26.823,55 euro
Errezil	34.374,20 euro	28.109,24euro
Zestoa	418.138,29 euro	399.260,10 euro
<b>Guztira</b>	<b>3.394.586,05 euro</b>	<b>2.981.741,31 euro</b>

### **2.3. 8. Kapituluua: Remanentea: 105.347,66 euro**

2021. urtean Diruzaintza Gerakinetik erabilitako kopurua honakoa da:

16/35

UROLA ERDIKO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA

Plaza nagusia 11-1 | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa

Tel: 943857319 | ueue@urolaerdia.eus | [www.urolaerdia.eus](http://www.urolaerdia.eus)





	Diruzaintza gerakina
Aizarnazabal	1.112,27 euro
Azkoitia	21.769,74 euro
Azpeitia	26.736,91 euro
Beizama	237,04 euro
Bidania-Goiatz	939,88 euro
Errezil	983,65 euro
Zestoa	53.568,18 euro
<b>Guztira</b>	<b>105.347,66 euro</b>



### GASTUAK ETA SARRERAK 2021eko aurrekontuaren arabera

GASTUAK	Aizarnazabal	Azkoitia	Azpeitia	Beizama	Bidania-Goiatz	Errezil	Zestoa	Guztira
<b>Kapitulu 1</b>	47.609,32 €	249.351,57 €	615.278,35 €	2.730,66 €	9.004,54 €	9.498,37 €	249.082,43 €	<b>1.182.555,24 €</b>
<b>Kapitulu 2</b>	33.578,01 €	1.259.414,13 €	1.006.632,29 €	8.661,86 €	30.180,43 €	31.487,89 €	250.601,02 €	<b>2.620.555,64 €</b>
<b>Kapitulu 3</b>	72,90 €	1.098,47 €	1.410,37 €	13,50 €	49,10 €	55,24 €	350,42 €	<b>3.050,00 €</b>
<b>Kapitulu 4</b>	96,80 €	1.458,63 €	1.872,78 €	17,93 €	65,20 €	73,35 €	465,31 €	<b>4.050,00 €</b>
<b>Kapitulu 6</b>	28.600,09 €	430.964,83 €	553.330,25 €	5.297,69 €	19.264,31 €	21.672,35 €	137.480,49 €	<b>1.196.610,00 €</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b><u>109.957,12 €</u></b>	<b><u>1.942.287,64 €</u></b>	<b><u>2.178.524,03 €</u></b>	<b><u>16.721,64 €</u></b>	<b><u>58.563,58 €</u></b>	<b><u>62.787,20 €</u></b>	<b><u>637.979,67 €</u></b>	<b><u>5.006.820,88 €</u></b>

SARRERAK	Aizarnazabal	Azkoitia	Azpeitia	Beizama	Bidania-Goiatz	Errezil	Zestoa	Guztira
<b>Kapitulu 3</b>	21.480,88 €	116.577,26 €	163.124,32 €	1.543,73 €	6.119,01 €	6.371,36 €	80.018,25 €	<b>395.234,81 €</b>
<b>Kapitulu 4</b>	59.876,14 €	1.394.745,54 €	1.462.069,47 €	9.880,22 €	33.180,27 €	34.743,49 €	420.480,93 €	<b>3.414.976,06 €</b>
<b>Kapitulu 5</b>								<b>0,00 €</b>
<b>Kapitulu 7</b>	1.185,73 €	7.178.672,28 €	22.940,40 €	219,64 €	798,67 €	898,51 €	5.699,77 €	<b>49.610,00 €</b>
<b>Kapitulu 9</b>	27.414,37 €	413.097,55 €	530.389,85 €	5.078,05 €	18.465,63 €	20.773,84 €	131.780,71 €	<b>1.147.000,00 €</b>
<b>Guztira</b>	<b><u>109.957,12 €</u></b>	<b><u>1.942.287,63 €</u></b>	<b><u>2.178.524,04 €</u></b>	<b><u>16.721,64 €</u></b>	<b><u>58.563,58 €</u></b>	<b><u>62.787,20 €</u></b>	<b><u>637.979,66 €</u></b>	<b><u>5.006.820,87 €</u></b>



**GASTUAK ETA SARRERAK 2021eko likidazioaren arabera**

GASTUAK	Aizarnazabal	Azkoitia	Azpeitia	Beizama	Bidania-Goiatz	Errezil	Zestoa	Guztira
<b>Kapitulu 1</b>	52.746,94€	154.176,61 €	550.690,42 €	2.212,73 €	7.103,42 €	7.370,72 €	270.388,85 €	<b>1.044.689,69 €</b>
<b>Kapitulu 2</b>	33.193,69 €	1.271.405,42 €	1.073.982,87 €	8.394,26 €	35.219,63 €	30.028,19 €	256.637,62 €	<b>2.708.861,68 €</b>
<b>Kapitulu 3</b>	83,34 €	1.255,86 €	1.612,44 €	15,44 €	56,14 €	63,15 €	400,63 €	<b>3.486,99 €</b>
<b>Kapitulu 4</b>	98,56 €	3.145,17 €	4.383,30 €	17,85 €	66,20 €	71,66 €	1.267,26 €	<b>9.050,00 €</b>
<b>Kapitulu 6</b>	456,65 €	6.695,85 €	8.725,79 €	82,71 €	306,73 €	332,01 €	54.514,45 €	<b>71.114,20 €</b>
<b>Guztira</b>	<b><u>86.579,18 €</u></b>	<b><u>1.436.678,91 €</u></b>	<b><u>1.639.394,81 €</u></b>	<b><u>10.722,99 €</u></b>	<b><u>42.752,12 €</u></b>	<b><u>37.865,73 €</u></b>	<b><u>583.208,81 €</u></b>	<b><u>3.837.202,56 €</u></b>

SARRERAK	Aizarnazabal	Azkoitia	Azpeitia	Beizama	Bidania-Goiatz	Errezil	Zestoa	Guztira
<b>Kapitulu 3</b>	14.946,99 €	173.993,33 €	177.897,48 €	2.371,93 €	9.658,30€	6.628,99 €	94.405,24 €	479.902,26 €
<b>Kapitulu 4</b>	7.427,04 €	96.390,13 €	121.298,40 €	1.646,23 €	5.330,39 €	2.143,84 €	35.975,30 €	270.211,33 €
<b>Ekarpena</b>	63.092,88 €	1.144.525,71 €	1.313.462,03 €	6.467,80 €	26.823,55 €	28.109,24 €	399.260,10 €	<b>2.981.741,31</b>
<b>Kapitulu 6</b>	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	0,00 €	<b>0,00 €</b>
<b>Kapitulu 8 Kreditu txertaketa (D.Gtik erabilitakoa)</b>	<b>929,92 €</b>	<b>15.788,75 €</b>	<b>21.007,50 €</b>	<b>167,58 €</b>	<b>620,92 €</b>	<b>671,72 €</b>	<b>40.106,09 €</b>	<b>79.292,49 €</b>
<b>Kapitulu 8 Kreditu gehigarriak (D.Gtik erabilitakoa)</b>	182,35 €	5.980,98 €	5.729,41 €	69,45 €	318,96 €	€ 311,93 €	<b>26.055,17 €</b>	<b>26.055,17 €</b>
<b>Guztira</b>	<b><u>86.579,18 €</u></b>	<b><u>1.436.678,91 €</u></b>	<b><u>1.639.394,81 €</u></b>	<b><u>10.722,99 €</u></b>	<b><u>42.752,12 €</u></b>	<b><u>37.865,73 €</u></b>	<b><u>583.208,81 €</u></b>	<b><u>3.837.202,56 €</u></b>
<b>Finantziazioa</b>	<b>64.205,15 €</b>	<b>1.166.295,45 €</b>	<b>1.340.198,93 €</b>	<b>6.704,84 €</b>	<b>27.763,43 €</b>	<b>29.092,89 €</b>	<b>452.828,28 €</b>	<b>3.087.088,97 €</b>



### 3. 2021eko EKARPENEN ALDEA

Benetako ekarpenak honela kalkulatzen dira: 2021 urtean zehar egindako ekarpenak, edo hartutako konpromisoak ekarpenak egiteko. Datuen arabera, udalerrri guztien 2021eko ekarpenetan egondako aldea 412.844,81 eurokoa da :

	2021eko ekarpen erreala	2021eko ekarpena likidazioaren arabera
Aizarnazabal	59.388,80 euro	63.092,88 euro
Azkoitia	1.387.402,00 euro	1.144.525,71 euro
Azpeitia	1.452.640,80 euro	1.313.462,03 euro
Beizama	9.790,00 euro	6.467,80 euro
Bidania-Goiatz	32.852,04 euro	26.823,55 euro
Errezil	34.374,20 euro	28.109,24 euro
Zestoa	418.138,28 euro	399.260,10 euro
<b>Guztira</b>	<b>3.394.586,12 euro</b>	<b>2.981.741,13euro</b>

#### 3.1. 2021eko ekarpenetik itzultzeko

	2021eko likidazioa
Aizarnazabal	-3.704,08 euro
Azkoitia	242.876,29 euro
Azpeitia	139.178,77 euro
Beizama	3.322,20 euro
Bidania-Goiatz	6.028,49 euro
Errezil	6.264,96 euro
Zestoa	18.878,18 euro

### 4. UDALERRI BAKOITZEKO DIRUZAINITZA GERAKINA

- (2020ko URTEARI DAGOKIENA)

2020an udalerrien artean banatzeko diruzaintza gerakina 677.277,39 euro izan zen, eta 2020. 2020ko gastuei aurre egiteko Aizarnazabalek eta Zestoa aparteko ekarpen egin dute; hurrenez hurren 4.502 eta 67.629 eurokoak eta Errezilgo udalak, horrela eskatuta 2020ko diruzaintza gerakinetik 5.100 euro itzuli zaizkio. Bestalde, 2021an Diruzaintza Gerakinetik 105.347,66 euro erabili ziren. Beraz, hasierako diruzaintza gerakinetik udalerrri bakoitzari honako hau geratzen zaio:



	<u>2020ko DG + aparteko ekarpenak</u>	<u>D.G. egindako kreditu aldaketak</u>	<u>2020ko DGtik itzulita</u>	<u>2020ko DG gelditzen dena</u>
Aizarnazabal	907,56	1112,27	0,00	-204,71
Azkoitia	463798,37	21769,74	0,00	442028,63
Azpeitia	186560,51	26736,91	0,00	159823,60
Beizama	8417,89	237,04	0,00	8180,85
Bidania-Goiatz	4790,79	939,88	0,00	3850,91
Errezil	14225,11	983,65	5100,71	814,70
